

**Familien
kontsumoa % 2,9
hazi da Frantzian**

BAIONA

Golkoko gerrak eragin nabaria izan bazuen iaz Frantziako ekonomian, ez da halakorik gertatu, ordea, familiek kontsumorako xahutu duten dirurekin. Insekek egin duen ikerketaren emaitzen arabera, familiek ez dituzte aldatu beren ohiturak, eta 3.895 mila milioi xahutu dituzte kontsumorako. Orokorrean, % 2,9 hazi da kontsumoa 1990ean, 1989an % 3 izanik. Baina zenbaki hauek antzeko hazkuntza isladatzen baldin badute ere, sailka izan den bilakaera oso desberdina izan da. Osasun Sailak biltzen du, Frantzian ohi bezala, hazkuntzarik handiena, % 8,2 medikamenduak % 9,8 izanez. Osasun Sailan erabili kopuruak, 368 mila milioietaraino iritsiz, gora dago etengabe, eta argi ta garbi erakusten du gobernuak gorriak ikusi beharko dituela Gizarte Seguratzaren zorrak estaltzeko.

Aisia eta kulturarekin zerikusirik duten sailek ere gorakada nabaria dagite, 295.000 milioietara iritsiz, % 5,2ko hazkuntzarekin. Aipagarria sail honetan, telebista, bideo eta goi-fidelitateko tresnerien erosteko erabili kopurua % 13 hazi dela. Aitzitik, elikagaientan xahutu kopurua % 1,7 goratu da bakarrik, 712 mila milioietakoa izanik, etxebizitzetan erabilitakoa baino milioi bat gehiago ozta ozta. Azken sail honetan gorakada % 0,9koa izan da, elektragailuekin izandako joeragatik hain zuzen, hauek % 0,3 jeitsi bait dute.

Azkenik, Garraio eta komunikabideei dagokiari, hazkuntza % 1,70koa izan da, 1989an % 3,8koa izan ba zen ere. Autoen salmentek eragin handia izan dute bilakaera honetan, 89an % 6,6 hazi baziren ere, 90an % 0,8koa izan da soilik.

**Anguita: «IU eta
PSOEn arteko
hitzarmen
premiarik ez dago»**

SANTANDER

Julio Anguita IUko koordinatzaileak adierazi zuen bere koalizioa eta PSOEn arteko hitzarmenak «urrutira gabe» ez daudela eta komunikabideek dioten bezain «agerikoa» ez direla. Anguitak esan zuen IU dela garantia bakarra eskuin boterea ez lortzeko eta PSOE politikak eskuindarra egin ez dezan. Koalizioko Lehendakariak proposatuko du hilaren 30ean beste indarrekin gobernu hitzarmenak sinatzea komeni den ala ez.

Senatuko botazio irregularra errepikatzea erabaki da

Bi aldiz bozkatu zuten senadoreek ez dute zigorrik jasoko


Espainiako Senatuko mahaiak erabaki zuen «komententzi politikoz» Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) legeproiektuaren botazioa bertan behera utzi eta errepikatzea, Juan Jose Labordak Ganbarako lehendakariak botazioa irregularra izatearen frogarik ez dagoela uste arren.

J.M.S. / DONOSTIA

PEZ legeproiektua onartu zen joan zen ostegunean Senatuan une hartan zeuden senadore baino boto gehiagorekin: 157 senadorek 177 boto eman zituzten. Atzoko erabakia mahaiko partaide guztiek (PSOeko lau, PPko bi eta CiUko bat) onartu zuten, nahiz eta Narcis Olivera ordezkari katalanak esan hasieran ez zela komeni botazioa errepikatzea. Labordak azpimarratu zuen prentsaurrekoan mahaiaren erabakia senadoreen ardurari dei bat bezala ulertu behar dela. Zigorrik ez dela izango iragarri zuen frogarik ez dagoelako eta Ganbarako araudian boto ematearen kontrol handiagoa ezartzearen aukera eskainia zien talde parlamentarioei.

BENEGAS ETA LABORDA Senatuko lehendakariak prentsan agertutako argazkiak baztertu zituen ustezko zigorrak ezartzeko frogagisa. Botazioaren sistema elektronikoa hobetzea eta Kongresuan bezala, eskainu bakoitzetik ematen den botoa azaltzeko panela eskatu zuen Labordak.

Jose Maria Benegas PSOeko an-



Bi senadore bi aldiz bozkatzeko, goian PSOEk, behean PPkoa.

EL SOL / CARLOS DE ANDRES

tolakuntza idazkariak esan zuen igandean Salamancan zigorrak izango zirela bi aldiz bozkatu zuten senadore sozialistentzat. Labordak esan zuen atzo goizean Benegasen deia jaso zuela eta zigor horietarako disposizioak ez zuela azaldu. Bi buruzagi sozialistak bat etorri ziren ez dagoen baten ordezkari bozkatzeko solidartate baldarra dela esatean. Benegasen hitzetan kontraesana ez al zegoen galdetu ziotenean kazetariak Labordari, honek erantzun zuen «Benegasek oso ondo eta oso argi» hitzegiten duela. «Nik Benegasi entzundakoa telefonoz entzun dut eta erabat sinesten dut» erantsi zuen.

Kasu hau eta Judiziamendu Kriminalaren legea Kongresuan aldatu

zuen botazioarena (legebiltzarkideen idatziz deklaratzeko eskubidea) antzekoak dira bakarrik, Labordaren iritziz, bi Ganbareko mahaiak botazioa errepikatzeke talde parlamentarioen eskaerak aztertu dituztelako. «Ganbara bakoitza subiranua da erabakiak hartzerakoan eta Kongresuko botazio horren kasuan ez zen desberdintasunik izan emandako botoak eta zeuden diputatuen artean. Kasu desberdinak dira eta horregatik erantzun desberdinak behar dituzte» adierazi zuen. Jakinaenez, Kongresuko mahaiak erabaki zuen botazio hura ez zela errepikatu behar.

Labordak esan zuen zenbait senadoreen botazio bikoitzak izan baziren «errepikatuko ez diren jokabide

bereziak izango zirela». Sanz Ganbarako bigarren lehendakariordea, PPkoa, pozik agertu zen bere taldeak aurkeztutako idatzia onartu egin delako. IUk ere beste idatzi bat aurkeztu zuen botazioa errepikatzea eskatuz. Mahaiko partaideek Diputatuen Kongresuari PEZaren legeproiektuaren testua eskatu zioten. Gaur bilduko da Senatuko Bozeramaleen Junta eta ostegun eguerdirako botazioa errepikatzea konbokatuko da formalki. Sartorius IUko bozeramaleak esan zuen falta ziren senadoreen partez botoa eman zutenek dimititu egin beharko luketela. «Horrela jokatzen dutenak printzipio politiko serioa izango balute, dimititu egin beharko lukete» esan zuen.

Helikopteroz ihes egiten saiatu zen Ocañako preso frantses bat

MADRIL

Toledoko Ocaña-I gartzelako preso frantziar bat helikopteroz ihes egiten saiatu zen atzo goizeko 11.30etan iturri penitentziarioek jakin erazi zutenez. Helikopteroak zortzi minutu pasa zituen gartzelako patioaren gainean presoak igotzeko zain. Aparailua bi ordu lehenago bahitu zuen 35 urte inguruko emakume errubia batek Cuatro Vientos aerodromoan, Cerro de los Angelesetik bidai turistiko bat egiteko alokatzen zuela esanez. Aireratu ondoren pistola batez mehatxatu zuen pilotoa eta presondegitantz zuzentzera behartu zuen.

Joe Vervliet presoak Ocaña-Iko erizaindegian zegoen igandetik eta gaur Carabancheleko (Madril) Hos-

pital General Penitenciariara eraman behar zuten. Goizeko 11.30etan helikopteroa gartzelara inguratu eta patorantz jaitsi zen, erizaindegiko leihoaren ondorantz. Han pasa zituen minutu batzuk, Vervliet-ek jauzi egiteko zain. Une horretan presoak bera zaintzen zuen funtzionario bati eraso egin zion helikopteroan igotzeko, baina zaindariak erantzun egin zuen eta beste kide batzuen laguntzaz harrapatu zuten. Presoa leihotik ez zela ateratzen ikusi zutenean, emakumeak erabaki zuen ihesari bukaera ematea. Helikopteroa Cerro de los Angelesera joan zen, emakumeak lurreratzera behartu zuen pilotoa, aparailutik jaitsi eta kotxe batez egin zuen ihes. Justizia Ministeritzak ez zuen informaziorik eman nahi izan gertakizun horietaz.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA**

IKERTZAILEAK GAITZEKO BEKAK

1991ko maiatzaren 13ko E.H.A.A.

PROGRAMAK:

Doktoradutza-aurrekoak. Espainiko Estatuan eta atzerrian
-Ezagupenaren alor orokorra
-Alor espezifikokoak

E.H.A.E.ra etortzeko doktoradutza ondorengoak
Ikertzaileen hobekuntzarako doktoradutza-ondorengoak

ESKABIDE ORRIAK ETA DEIALDIAREN OINARRIAK:

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan, UPV-EHU-ko Errektoradutzan, Arabako eta Gipuzkoako Errektoreordetzetan eta Zientzi Politikarako Zuzendaritzan.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

1991ko ekainaren 7ra arte